

T X O S T E N A



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTeko LANIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA





## Aurkibidea

01	Aurkezpena	3
02	Prestakuntza eta Irakaskuntza	5
03	Dokumentazio Zentroa	8
04	Ikerketa	10
05	Sentsibilizazioa	16
06	Garapenerako Hezkuntza	19
07	Aholkularitza eta Kontsultoretza	22
08	ART Programa	24
09	Beste jarduera batzuk	25
10	Argitalpenak	26
11	Organigrama instituzionala	29
12	Txosten ekonomikoa	30





## Aurkezpena

2007ko Memoria honetan, labur-labur azalduko dugu zeintzuk izan diren HEGOA Institutuko lan-sailek garatutako jarduera nagusiak.

Unibertsitateko Prestakuntza eta Irakaskuntza Sailean, aurton Europako Goi Hezkuntzaren Eremura (EGHEra) egokitutako lehen tituluak eskaini dira. Hori dela-eta, 2007-2008rako graduatu ondoko irakaskuntza-eskaintzan bi master egongo dira, eta titulazio ofiziala emango dute, titulazioak Europako Goi Hezkuntzaren Eremu (EGHE) berrira egokitzeko prozesuaren esparruan. Bestetik, beste bi ikastaro egongo dira. Bertan, hain zuzen ere, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHUko) titulua lortu ahal izango da, eta azken urteotan emandakoen antzekoa izango da.

Dokumentazio Zentroak ahalegin handia egin du, PDF formatuko argitalpenak eskaintzeko (1.000 agiri jaitsi daitezke) eta Hegoan ikaskuntzarako zein ikerketarako ditugun baliabideak jakitera emateko eta web eremuan agerpen handiagoa izateko. Horretarako, ikastaroak eta demoak egin ditugu zenbait talderekin: Deustuko Unibertsitateko eta EHUko hirugarren zikloko ikasleak, Erandioko Prestakuntza eta Lan Zentroko eta Prestakuntza Fondoko Liburutegietako Laguntzaileak izateko ikasten ari diren ikasleak, Vitoria-Gasteizko Udaleko Lankidetzako Kontseilua, 2007ko Borondatezko Euskal Gazte Lankideak eta REDIALeko zenbait topaketa (Amerika Latinoari buruzko Informazio eta Dokumentazio Sare Europarra)...

Ikerketa Sailean, 2007. urtea erabakigarria izan da egitura egonkorragoa lortzeko orduan. Horretarako, egitura bera berrantolatu da, laguntzaile tekniko bat kontratatu da eta Hegoara atxikitako EHUko irakasleak gehiago inplikatu dira institutuan bertan garatutako proiektu eta ikerlanetan. Aurton, gainera, Hegoako Ikerketa Batzordeko kide gehienak *2007-2009ko EHUko Giza Segurtasunari eta Tokiko Giza Garapenari buruzko Talde Sendotuaren* barruan sartu dituzte, eta ikerketarako lankidetzak-hitzarmena berri du Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzarekin, 2007-2008ko biurtekorako.

Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako Sailean, otsailean *Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak* Biltzarra egin zela nabarmendu beharra dago. Bertan, zenbait arlotako jendea bildu zen (unibertsitatea, GGKE, sindikatuak, gizarte-mugimenduak...), globalizazioari eta bere ondorioei buruzko diagnostiko partekatua egiteko eta, batez ere, berdintasunezkoagoa den mundu

solidarioagoaren eraketarako ekimenak sustatzeko. Bestetik, sailaren lan-lerroak zehazteko bi proiektu egiten hasi gara. Batetik, *Generoa garapenerako hezkuntzan. Iparraldearen eta hegoaldearen eztabaidagaiak, emakumeen agenda politikorako* proiektua dugu. Proiektuak bi urteko iraupena du, eta ACSUR-Las Segoviasekin batera egiten da. Lankidetzarekin eta garapenerako hezkuntzarekin zerikusia duten eragileak sendotzea du helburu, genero-berdintasuna giza garapenerako ardatza dela konturatu daitezela. Bestetik, *Herritartasun globalerako hezkuntzari buruzko ikerketa, eztabaidak eta esperientziak* proiektua dugu. Bertan, Garapenerako Hezkuntza, Kultura arteko Hezkuntza eta zeharkako antzeko ikuspegiak kontuan hartzean Hezkuntza Lege berriak (LOEK) eskaintzen dituen aukerak aztertuko dira.

Aholkularitza eta Kontsultoretza Sailean, aldundi, udal eta beste erakunde batzuentzako aholkularitza-lanak egiten jarraituko dugu, baina horrez gain, hitzarmena sinatu dugu Bilboko Udaleko Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzailearen bitarteko ebaluazioa egiteko. Bestetik, prestakuntza eta laguntza teknikorako programak sendotu eta indartu egin dira, Kuban zein Saharan. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Laguntzako Zuzendaritzaren eta Hegoaren arteko hitzarmenaren barruan, iparraldeko lankidetzara-eragileen teknikarientzako eta hegoaldean Nikaraguan, Perun eta Guatemalan dauden kontraparteentzako prestakuntza eta laguntza teknikorako programak garatu dira.

Azkenik, aurtun, Hegoa Institutuaren eta ART Programaren (Giza Garapenerako Lankidetzako Lurralde Sare Tematikoetarako Laguntzaren) arteko lankidetzahitzarmena sinatu da. Nazioarteko lankidetzarako ekimena da, eta Nazio Batuetako zenbait erakunderen programak eta jarduerak biltzen ditu (PNUD, UNESCO, UNOPS, UNIFEM eta beste batzuk), giza garapenerako eta nazioarteko lankidetzako jarduerak sustatzeko eta zabaltzeko. Hitzarmen horren barruan, Tokiko Giza Garapenerari buruzko Baliabideen Web Sistema sortuko da, gaiarekin lotutako baliabideak kudeatu, sailkatu eta aurkezteko eta EAEn egin beharreko programa-zabalkundearekin lotutako ikasmaterialak sortzeko. ■



## Prestakuntza eta Irakaskuntza

2007-2008ko ikasturtean, EHUko bi titulu ofizial ematen hasi gara. *Globalizazioa eta Garapena* Masterra (ikerketa), hau da, lehengo *Globalizazioa, Garapena eta Nazioarteko Lankidetz*a doktoretza-programaren ordezkoa; eta *Garapena eta Nazioarteko Lankidetz*a Masterra (profesionala), hau da, lehen izen bera zeukan tituluaren ordezkoa. Bi masterrok garapenari, globalizazioari eta nazioarteko lankidetzari buruzko ikasketa-programa orokorraren barruan kokatuta daude, eta ikasleek ikerketa-prestakuntzan zein lan profesionalerako prestakuntzan espezializatzea du oinarritzko helburu. Esparru horretan, bi masterren lehen zatia berdina da (24 ECTS kreditu), eta, bertan, honako gaiok jorratzen dira: nazioarteko sistema ekonomikoaren egitura eta dinamika, nazioarteko harremanak eta globalizazioan gertatutako eraldaketak eta garapenari buruzko teoriak zein neurketa. Zati berdinean horren osagarri, gizarte-zientzien arloko ikerketarako sarrera eskaintzen da, oinarritzko zenbait ikerketa-tresna ezagutzeko. Lehen zatian, 16 kreditu ematen dira euskaraz.

Bigarren zatian, *Globalizazioa eta Garapena* Masterra (ikerketa) egin nahi duten ikasleek hiru ibilbide izango dituzte aukeran, euren ikerketa-asmoen arabera: *Globalizazioa eta Nazioarteko Harreman Ekonomikoak*; *Giza Garapen Iraunkorraren Dimentsioak*; eta *Toki Garapena eta*

*Ekonomia Soziala*. Horrez gain, ikerlana egin beharko dute derrigorrean, horretarako izendatutako masterreko irakasleen ikuskaritzapean. Masterreko 60 kredituak gaindituz gero, ikasleek zuzenean egin ahal izango dute doktoretza.

*Garapena eta Nazioarteko Lankidetz*a Masterra (profesionala) egin nahi duten ikasleek, ordea, derrigorrezko ikastaroak eta hautazko ikastaroak egin beharko ditu, etorkizunean garatuko duen lanaren ezaugarrien eta premien arabera. Bigarren zatia amaitutakoan, master honetako ikasleek derrigorrezko praktikak egin beharko ditu hiru eta sei hilabete arteko epealdian, Afrikan, Asian edo Amerika Latinoan garatutako eta euren ezaugarrien arabera esleitutako garapenerako lankidetzako proiektu batean. Gainera, masterreko 60 kredituak gaindituz gero, ikasleek Programako Ikasketa Batzordeak zehaztutako baldintza berezietan egin ahal izango dute doktoretza.

Bestetik, honako hauexek dira EHUko bi tituluak: *Garapenerako Lankidetzako Estrategiak, Eragileak eta Politikak* Masterra (on line); eta *Europar Batasuneko Immigrazioa eta Garapenerako Lankidetz*a Masterra (on line). Bi masterrok Hegoa Institutuko graduatu ondoko irakaskuntza-eskaintzaren barruan egon dira azken urteotan, eta lanean edo urrun egoteagatik programan zuzenean parte hartzerik ez duten ikasleentzakoak dira.

## ■ Titulu Ofizialak

### Globalizazioa eta Garapena Masterra

*Globalizazioa eta Garapena* Masterra Euskal Herriko Unibertsitateko titulu ofizialen eskaintzaren barruan dago, eta HEGOA Institutuak, I. Ekonomia Aplikatuko Sailak eta IV. Ekonomia Aplikatuko Sailak sustatzen dute.

Bere helburu nagusia ikerketa-prestakuntza denez, globalizazioaren fenomenoaren eta garapen-prozesuen arteko loturak aztertzen ditu, giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegiak kontuan hartuta. Diziplina arteko irakaskuntza-proposamena da, eta Europako beste herrialde batzuetako Garapenari buruzko Ikasketen tradizioan (Development Studies) kokatuta dago.

### Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterra

*Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta* Masterra Euskal Herriko Unibertsitateko titulu ofizialen eskaintzaren barruan dago, eta HEGOA Institutuak, I. Ekonomia Aplikatuko Sailak eta IV. Ekonomia Aplikatuko Sailak sustatzen dute.

Bere helburu nagusia ikasleek garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan duten lanbide-prestakuntza sustatzea da, berdintasuna, txirotasunaren aurkako borroka, giza garapena eta iraunkortasuna kontuan hartuta. Ikuspegi horretatik, ikasleei kalitateko eta diziplina anitzeko lanbide-prestakuntza eman nahi diegu, garapenerako lankidetzaren arloan hobeto laneratu daitezen.



## ■ EHUko Tituluak

### Garapenerako Lankidetzako Estrategiak, Eragileak eta Politikak On Line Masterra

On line master honen bosgarren edizioa jarri da abian, eta gure lurraldean bertan eta gure lurraldetik kanpo dauden garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeetan (GGKE-etan) nahiz estatuko, lurraldeko eta tokian tokiko instituzio publiko eta administrazioetan garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten dutenei etengabeko prestakuntza eskaintzea du helburu.

Masterrak 60 kreditu ditu, eta, eurretatik, 51 zati teorikokoak dira. Gainerako 9ak lortzeko, azken memoria egin behar da. Irakaskuntza-programa 12 modulutan banatuta dago, eta ikas-turteak 9 hilabete irauten du.

### Europar Batasuneko Immigrazioa eta Garapenerako Lankidetzak On Line Masterra

Immigrazioko gaietan interesa edukita Europako gaietan espezializatzeko asmoa dutenentzako masterra da. Hona hemen hartzaile nagusiak: GGKE-etan lan egiten dutenak edo lan egin nahi dutenak, betiere Europar Batasuneko sare bateratua, finantziario-aukerak eta partaidetza-eremuak ulertu eta erabili nahi badituzte; eta nazioarteko instituzioetan eta administrazio publikoetan immigrazioari eta garapenerako lankidetzari buruzko prestakuntza osatu behar dutenentzat.

Graduatu ondoko on line ikastaro honen hirugarren edizioa jarri da abian, eta honako haue-  
xen arteko lankidetzaren ondorioz sortu da: EHUko Zuzenbide Konstituzional, Zuzenbide  
Administratibo eta Zuzenbidearen Filosofiako Saila (Europar Batasuneko instituzioei eta  
zuzenbideari buruzko gaiak jorratzen ditu) eta HEGOA Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenari  
buruzko Ikasketak Institutua. Abian jartzeko orduan, beste instituzio laguntzaile aditu batzuen  
laguntza ere jaso dugu; esate baterako, Bartzelonako Unibertsitateko OBREAL (Europaren eta  
Amerika Latinoaren arteko Harremanen Behatokia), EHUko IKUSPEGI (Immigrazioari buruz-  
ko Euskal Behatokia) eta estatuko zein nazioarteko adituak.

Masterrak 60 kreditu ditu, eta, eurretatik, 57 zati teorikokoak dira. Gainerako 3ak lortzeko,  
azken memoria egin behar da. Irakaskuntza-programa 12 modulutan banatuta dago, eta ikas-  
turteak 9 hilabete irauten du.

Hegoako Dokumentazio Zentroa Garapenean eta Nazioarteko Lankidetzan espezializatuta dago. Bertan, zuzeneko liburutegia eta on line liburutegi digitala daude. Guztira, 17.000 erregistro bibliografiko daude, liburuak, erreferentziako lanak, aldizkarietako artikulak eta literatura grisa kontuan hartuta. Fondoak zortzi unitate tematiko handitan egituratuta eta bost gordailutan antolatuta daude. Guzti-guztiak bertako hiztegiaren edo Tesauoroaren terminologia estandarren arabera sailkatuta eta kontrolatuta daude, eta 1.100 gako-hitz edo deskribatzaile daude, informazioa errazago berreskuratu eta trukatzeko.

Era berean, zuzeneko zerbitzuak ere badaude: kontsultak, maileguak, prestakuntza eta erabiltzaileen ikasketa edo lan jarduerarako laguntza, bai eta honako zerbitzu elektronikoen hauek ere:

- **Aldizkarien katalogoa:** garapenari eta nazioarteko lankidetzari buruzko gaietan espezializatutako 170 aldizkari baino gehiago. Katalogoan eskainitakoa: eduki tematikoei buruzko laburpen txikia, Hegoako liburutegiko bildumaren egoera eta organismo argitaratzaileerako eta aldizkarirako sarbidea, sarean eskuragarri egonez gero.
- **Erreferentziako lanak:** organismo argitaratzailearen arabera antolatutako erreferentziako lanen hautaketa (txostenak, urtekariak, estatistikak...). Guzti-guztiak liburutegian kontsultatu daitezke, eta askoren testu osoak sarean bertan daude ikusgai.
- **Informazio-baliabideen aldizkaria:** 2007. urtean, honako aldizkari hauek argitaratu dira:
  - ✓ Informazio-baliabideei buruzko aldizkaria, 13. zk., *Transnazionalak eta garapena*. 2007ko azaroa.
  - ✓ Informazio-baliabideei buruzko aldizkaria, 12. zk., *Milurteko Garapen-Helburuen erdibidean. Nazio Batuetako 2007ko Txostena*. 2007ko iraila.
  - ✓ Informazio-baliabideei buruzko aldizkaria, 11. zk., *Estatu ahulak - porrot egindako estatuak: estatuaren gabeziak eta garapena*. 2007ko apirila.
  - ✓ Informazio-baliabideen buletina, 10. zk. *Ingurumenari buruzko Nairobiko Gailurra: klima aldaketa eta garapena*. 2007ko urtarrila.
- **Azken aldizkarien hilabetekariak** (4) eta kanpo-komunikaziorako zerbitzuak: banaketa-zerrendak, liburutegiko iragarkiak, aldez aurretik zehaztutako interes-profilen araberako informazio-zabalkunde selektiboa...

2007. urtean, Dokumentazio Zentroak ahalegin handia egin du, PDF formatuko argitalpenak eskaintzeko (1.000 agiri jaitsi daitezke) eta Hegoan ikaskuntzarako zein ikerketarako ditugun baliabideak jakitera emateko eta web eremuan agerpen handiagoa izateko. Horretarako, ikastaroak eta demoak egin ditugu zenbait talderekin: Deustuko Unibertsitateko eta EHUko hirugarren zikloko ikasleak, Erandioko Prestakuntza eta Lan Zentroko eta Prestakuntza Fondoko Liburutegietako Laguntzaileak izateko ikasten ari diren ikasleak, Vitoria-Gasteizko Udaleko Lankidetzakontseilua, 2007ko Borondatezko Euskal Gazte Lankideak eta REDIALeko zenbait topaketa (Amerika Latinoari buruzko Informazio eta Dokumentazio Sare Europarra)...

EGHE berriaren esparruan, Lleidako Unibertsitateko Lankidetzakentzako dokumentazio-arduraduna egon zen Hegoan, bertako nondik norakoak ezagutzeko. Aldi berean, EHUko eta beste zentro batzuetako lau ikasleek praktikak egin dituzte Dokumentazio Zentroan, eta ikasleko batezbestekoa 300 ordukoa izan da. Aurton, laguntza eta aholkularitza eskaini dizkiegu beste liburutegi txiki batzuei: Nikaraguako Xochil Acal Zentroa eta Lugoko Kandaharia. Beste batzuek, ordea, gure Tesaurora erabiltzeko eskatu digute: Peruko Liburutegi Nazionala, Zaragozako Udala eta Agència Catalana de Co-

peració al Desenvolupament. Hegoako beste jarduera batzuetarako lankidetzari dagokionez, *Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak* Biltzarreko Batzorde Antolatzailean parte hartu dugu, bai eta Ikerketa Saileko bi proiektutan ere.

Horrez gain, Dokumentazio Zentroak Hegoaren orri instituzionaleko web masterra kudeatzen hasi da, edukien arloan. Bestetik, Intranet instituzionala diseinatu eta abian jarri du, 40 lagunetik gorako taldearentzako jakintzaren barne-kudeaketa zerbitzuan jartzeko.

Zentroak harreman iraunkorra du dokumentazioan espezializatutako beste organismo batzuekin. Beraz, bete-betean parte hartzen du WIDE (Women in Development Europe) eta REDIAL sare europarren biltzar eta batzar nagusietan eta *Informazioaren kudeaketa: zerbitzu dokumentalak eta komunikazio informatzea eta zabaltzea IX*. Jardunaldietan.

Dokumentazio Zentroak EHUren, Eusko Jaur-laritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-babesa jaso du.

# Ikerketa

2007. urtea erabakigarria izan da egitura egonkorragoa lortzeko orduan. Horretarako, egitura bera berrantolatu da, laguntzaile tekniko bat kontratatu da eta Hegoara atxikitako EHUko irakasleak gehiago inplikatu dira institutuan bertan garatutako proiektu eta ikerlanetan. Aurton, gainera, Hegoako Ikerketa Batzordeko kide gehienak *2007-2009ko EHUko Giza Segurtasunari eta Tokiko Giza Garapenari buruzko Talde Sendotuaren* barruan sartu dituzte.

Era berean, 2007. urtean, Hegoak ikerketarako lankidetzaren hitzarmena berri du Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzarekin (SECIrekin), 2007-2008ko biurtekorako. Horren arabera, zenbait ikerketa-mintegiren plangintza eta garapena antolatu ziren, dokumentazio espezializaturako dossier digitalak prestatu ziren eta gai zehatzei buruzko lan-koadernoak egin ziren.

2007. urtean, Ikerketa Sailak bere egitura berrantolatu zuen, Hegoara atxikitako EHUko irakasleen osoko bileraren eta aldian-aldian egunez eguneko ikerketa-gaien atentziorako biltzen den ikerketa-batzordearen arabera eratzeko: deialdiak, proiektuen aurkezpena, ikastaroen eta mintegien antolaketa, ikerketa foro eta sareetako partaidetza... egitura hori sendotzeko, Gloria Guzmán kontratatu genuen, laguntza teknikoa emateko eta Ikerketa Saila suspertzeko.

## Ikerketa-Proiektuak

### 2007-2009ko EHUko Giza Segurtasunari eta Tokiko Giza Garapenari buruzko Ikerketa Talde Sendotua

Urtean zehar, Hegoako ikertzaileek eta irakasleek osatutako ikerketa-talde sendotua onetsi dute hurrengo bi urteetarako, giza segurtasunari eta tokiko giza garapenari buruzko ikerketak egiteko. Hiru Urteko Planaren arabera, Giza Segurtasuna (GS) eta Tokiko Giza Garapena (TGG) aztertuko dira, bi ikuspegi kontuan hartuta. Batetik, honako hauexek izango dira aztergai nagusiak: euren oinarri kontzeptualak, bilakaera, zenbait ikuspegi teoriko, ekintza politikoan eta garapenerako lankidetzan dituzten aukerak eta bi kontzeptuen

arteko erlazioak eta sinergiak. Bestetik, lan praktikoagoa garatuko da. TGG eta GS azterketa-kategoriatzat hartuta, Angolako (2. lerroa) eta Salvadorko zein Bosniako (3. lerroa) gerren osteko gaur egungo errehabilitazio-prozesuak aztertuko dira genero-ikuspegitik. Horrez gain, Kolonbian, Kuban eta Saharan (4. lerroa) TGG sustatzeko garatutako esperientzia politikoak eta programak aztertu eta sistematizatu egingo dira.

### **Atzerri Ministerioaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Espainiako lankidetzaren jarrera doktrinalaren hobekuntzarako lan-lerroak garatzeko**

Bigarren aldiz, Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzak lankidetzaren hitzarmena sinatu du EHUrekin, Hegoa Institutuak ikerketa-mintegiak eraman ditzan eta gai zehatzei buruzko lan-koadernoak eta dokumentazio

espezializatuaren dossier digitalak egin ditzan. Horrela, garapenerako lankidetzaren espainiarraren jarrera doktrinala hobetu ahal izango da. Bigarren hitzarmen hau 2007-2009an egongo da indarrean.

### **Gerrako, gizarte eta ingurumeneko gatazken dimentsio psiko-soziala, bateratua eta generokoa: giza eskubideak, nazioarteko laguntza eta bakearen eraketa**

Proiektu hau Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Fondoak (FOCADek) finantzatu du 2007ko deialdian. Bertan, gatazkei eta bakeari buruzko azterketetan bigarren mailan geratu ohi diren alderdien gaineko lau ikerketa-lerro garatzen dira: a) gizarte eta ingurumen arloko gatazka-kengatiko ordaina; b) dimentsio psiko-soziala, gatazka bortitzetan giza eskubideen urraketetako biktimekin garatutako lanean; c) gerraosteko

errehabilitazioa eta bakearen eraketa, genero-ikuspegia kontuan hartuta; eta d) garapenerako lankidetzaren, ekintza humanitarioaren eta bakearen eraketaren arteko lotura. Proiektuak 2007ko azarotik 2009ko azarora arte iraungo du, eta, bertan, Carlos Martín Beristain, Karlos Pérez de Armiño eta Irantzu Mendia ikertzaileek parte hartzen dute.

### **Birmoldaketari, elikaduraren subiranotasunari, generoari eta iraunkortasun ekologikoari buruzko ikerketa tematikoen garapena**

Atzerriko Inbertsio eta Lankidetzako Ministerioak (MINVECEk) eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu dute, Habanan eta Kubako mendebaldeko lurraldeetan ikerketa, trebakuntza eta laguntza teknikoak sustatzeko. Hain zuzen ere, honako hiru ikerketok egingo dira:

- *Kubako ekialdeko eskualdeetako azukre-birmoldaketako produktuarentzako merkatu-azterketa.* Hona hemen ikerketaren helburu nagusia: Kubako ekialdeko eskualdeetako sektore

turistikoa inportatutako produktuen kontsumo-premiak zeintzuk diren jakitea, azukre-sektorea birmoldatzean sortzen diren enpresa-ekimenetan ekoiztuta horrelako produktu batzuk ordezkatu daitezkeen planifikatzeko. Horrela, proiektu horien bideragarritasuna eta erasandako biztanleen elikaduraren subiranotasuna bermatu ahal izango dira. Enpresa Kudeaketako Ikaskuntzen Zentroa (CEGEM). Holguineko Unibertsitatea.

- *Elikagaiak ekoizteko gaitasunei buruzko azterketa, Kubako ekialdeko eskualdean elikaduraren subiranotasuna/nahikotasuna bermatzeko: CAI MACEO.* Hona hemen ikerketaren helburu nagusia: birmoldatzen ari diren zenbait CAItan (MACEO) oinarrizko elikagaiak ekoizteko gaitasuna duten jakitea eta biztanleen kontsumo-premiak nolakoak diren zehaztea. Horrela, ekoizpen-plana egin ahal izango da, aztergai diren biztanleen elikadura-nahikotasuna bermatzeko eta ingurumen zein genero arloko dimentsioekin lotutako alderdiei lehenentasuna emateko. Nekazaritza-ekosistema Aridoetarako Ikaskuntza Zentroa (CEAAR). Holguineko Unibertsitatea. Kuba.
- *Kubako ekialdeko eskualdeetako azukre-birmoldaketarako esperientzien sistematizazioa.* Hona hemen ikerketaren helburu nagusia: Kubako ekialdeko eskualdeetako azukre-sektorearen birmoldaketarako ekimenak biletzea eta aztertzea eta ingurumen zein genero arloko dimentsioekin lotutako alderdiei lehenentasuna ematea. Horrela, betearazpenaldian abian jarritako prozesuen informazio antolatua eta sistematizatu lortu ahal izango dugu, ondorioak atera ahal izango ditugu eta hurrengo ekimenetarako irakasbidea izango da, herrialdeko beste leku batzuetan egindako birmoldaketetan. Kultura eta Identitateari buruzko Ikasketa Zentroa (CECI). Holguineko Unibertsitatea.

## ■ Doktoretza-Tesiak

*Udalerriaren gaitasunak eta mugak, Amerika Latinoko familien elikaduraren subiranotasuna eta tokiko giza garapena sustatzeko: Motul, Lavalle eta San Roman.* Angel Lendecky Grajales. Yucatango Unibertsitatea, Mexiko. Karlos Pérez A. de Armiñok zuzendutako tesia. 2007ko abendua.

## ■ Ikerketako eta Prestakuntzako Mintegiak

### Amerika Latinoko politika ekonomiko eta sozialei eta tokiko giza garapenari buruzko ikerketa-mintegia: Venezuela

Mintegi hau Hegoak eta Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzak (SECIk) 2007-2008ko biurtekorako sinatutako lankidetzahitzarmenaren barruan kokatu zen. Hegoara atxikitako EHUko Mikel de la Fuente irakasleak koordinatu zuen Ikaskuntza Politiko eta Sozialen Zentroarekin (CEPSekin). Venezuela kontuan hartuta, mintegian, Tokiko Giza Garapenaren eta politika ekono-

miko eta sozialen plangintzaren zein diseinuaren artean dauden loturak aztertu zituzten. Mintegian, honako erakunde hauetako hizlariak parte hartu zuten: Malagako Unibertsitatea, Valentziako Unibertsitatea, Venezuelako Unibertsitate Zentrala, Venezuelako Ikaskuntza Aurreratuen Institutua (IDEA) eta Bartzelonako *Taifa* Ekonomia Kritikoaren Mintegia. 2007ko urriaren 24a.



## Prestakuntza mintegia. Krisi energetikotik Eguzki-Ekonomiara

Saila berrantolatu ondoren, *Prestakuntza eta Eztabaidarako Guneak* izeneko eremu berria jarri da abian, aldian-aldian prestakuntzako, trebakuntzako eta eztabaidako gai nagusiak jorratzeko. Lehen mintegia Roberto Bermejo irakasleak

eman zuen, eta zehatz-mehatz azaldu zuen nolako inplikazioak izan dituen krisi energetikoak eta nolako gaitasuna duen eguzki-energiak, etorkizunari begira. 2007ko abenduaren 6a.

## Ikerketa-Bekak

2007an, María López Bellosok bere ikerketa-beka berri zuen, Eusko Jaurlaritzako Ikertzaileak Prestatzeko Programaren barruan. Horren bitartez, Hegoako ikertzaile moduan kontratatatu genuen, eta doktoretza-tesia egiten jarraitzen

du. Aurton, Irantzu Mendiak Ikertzaileak Prestatzeko Programa berarekin zeukan lotura amaitu zuen, lau urtez Hegoako bekaduna izan ondoren, eta Ikerketa Saileko proiektuetako batean hasi zen lanean.

## Ikerketa-Sareetako Partaidetza

### Hegoaren, Portugaleko Coimbrako Unibertsitateko Bake Ikaskuntzen Gunearen (NEPen) eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Afrikako Ikaskuntzen Taldearen (GEAren) arteko ikerketa-sarea

Hegoaren eta bi ikerketa-zentro horien arteko lan-harremana iraunkorra izan da azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak *Ikerketa eta Lankidetzaren Sarearen Ezarpenari begira Ikerketa Taldeak sendotzeko* emandako *Laguntzen* bitartez. Dena dela, hiru zentroyen arteko ikerketa-sare egonkorra sortu ahal izan da 2006-2007rako. Sareko hiru kideen ikerketa-interesak berberak dira, hau da, bakeari eta gatazkei buruzko azterketak, giza

segurtasuna, estatu ahulak eta porrot egindako estatuak eta Afrikako Kontinenteko egoeraren azterketa. Hona hemen sareko ikertzaile ardurdunak: José Manuel Pureza (NEP), Francisco Javier Peñas Esteban (GEA), eta Karlos Pérez de Armiño (Hegoa), EHUko Eduardo Bidaurrezaga, Jokin Alberdi eta Irantzu Mendia irakasleak, eta María López Bellosorekin talde osatuz.

### **Agrupament de Recerca i Docencia d'Àfrica-Afrikari buruzko Ikerketa eta Irakaskuntzarako Elkarte (ARDA)**

ARDA unibertsitate arteko sare tematikoa da, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren onspena du, eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Afrikako Ikaskuntzen Taldea (GEA), Bartzelonako Unibertsitateko Afrikako Ikaskuntzen

Zentroa (CEA) eta Hegoa ditu kide. Sarearen esparruan, Hegoako Ikerketa Saileko zenbait kidek bete-betean lan egin dute irakaskuntzako zein prestakuntzako jardueretan eta baterako argitalpenetan.

### **Bakearen Ikerketarako Elkarte Espainiarra (AIPAZ)**

2007ko azaroan, AIPAZen ohiko batzarra egin zen, eta Hegoa bertara joan zen. aldi berean, Kataluniako Bakearen aldeko Nazioarteko Institutu berria sortu zen. Hori dela-eta, garapenari eta

bakeari buruzko ikerketekin zerikusia duten zentro eta institutu ugariak ordezkariak bildu ziren Bartzelonan, bakerako ikerketak Estatu espainolean dituen etorkizuneko erronkez eztabaidatzeko.

### **EADI. European Association of Development Research and Training Institutes**

Hegoa Europako ikerketa eta prestakuntza sareko institutu kideetakoa da. 2007ko FOCADen bidez babestutako ikerketa Proiektuaren esparruan, Hegoak, EADIren babesaz, EADIko Nazioarteko Udako Eskolaren hurrengo edizioa Bilbon

antolatzea proposatu zuen. Izan ere, 2008ko irailean egingo litzateke. Horretarako, Ikerketa Saileko zenbait kide EADIren prestakuntza eta goi-hezkuntza lantzen dituen lan-talde finkoarekin daude harremanetan.



## ■ Ikastaroen Antolaketa

### **EHUko Udako Ikastaroa. Gizarteari begira Lurralde Arduratsu eta Integratzaileak. Sarriko, 2007ko uztailak 12-13**

Hegoara atxikitako EHUko María Ángeles Díez irakaslea eta Carlos Askunze (REAS, Bilbo) izan ziren ikastaroko koordinatzaileak. Ikastaroko lurralde-garapenaren kontzeptu berria ezagutzea eta sakon aztertzea izan du helburu nagusi. Eredu hori, hain zuzen ere, ekonomia solidarioaren printzipioak hartzen ditu kontuan, eta, pertsonetan zein gizarte-arloan oinarrituta, ekonomiarako garapen iraunkorra bultzatu nahi du. Horretarako, European eta Espainian garapeneredu berri hori erabiltzen hasi diren esperient-

ziak aurkeztu zituzten. Hona hemen ikastaroko parte-hartzaileak: Luigi Martignetti REVESeko idazkari nagusia (European Network of Cities and Regions for the Social Economy), Gaetano Giunta (ECOS-MED), Henri Arevalo (Ramonvilleko alkatordea eta Sicovaleko presidenteordea), Daniel Jover (APRISE-PROMOCIONSeko presidentea eta Kataluniako Ekonomia Solidarioko Xarxako kidea) eta Juan Pastor (Extremadurako Juntako Gazte Ekimena proiektuko zuzendari-gerentea).

### **EHUko Udako Ikastaroa. Milurteko Garapen-Helburuak eta Sahara Azpiko Afrikako Nazioarteko Lankidetzak. Donostia, 2007ko uztailak 18-20**

Hegoak, Carolina Fundazioarekin batera, Karlos Pérez de Armiñoren zuzendaritzapeko ikastaroa antolatu zuen. Honako hauek izan ziren helburuak: Sahara Azpiko Afrikan Milurteko Garapen-Helburuak (MGH) betetzeko aurreikuspenei eta erronkei buruz hausnartzea; eskualdeko testuinguru politiko, sozial eta ekonomiko zaila aztertzea; globalizazioaren gaur egungo esparruan giza garapenerako prozesuei ekiteko gaitasuna

beharreko oztokoak ikertzea; eta MGH lortzeko tresnatzat hartutako nazioarteko lankidetzaren ahalmenak eta mugak arakatzeko. Irakaskuntza-taldean, Hassen Lorgatek (South African NGO Coalition-SANGOCO, Johannesburg), Carlos Oyak (School of Oriental and African Studies-SOAS, Londres), Helena Zefanísek (Norwegian People's Aid, Luanda) eta Karlos Pérez de Armiñok (Hegoa-EHU) parte hartu zuten.

### **Ikastaroa. Multinazionalak, baliabide naturalak eta giza eskubideak Kolonbian: erresistentziak eta etorkizuneko aurreikuspenak. Bilbo, 2007ko azaroak 19-22**

Ikastaroa Amerika Latinoko Multinazionalen Behatokiak (OMALEk), Bakea eta Duintasuna Elkartek eta Hegoak antolatu zuten, Hegoara atxikitako EHUko Patxi Zabalo irakaslearen eta OMALEko Luis Nietoren koordinaziopean. Ikastaroan, zenbait gai jorratu zituzten: multinazionalen zor ekologikoa, Kolonbiako estrategia para-

militarraren eta baliabide naturalen arteko lotura, herrialdean inbertitzen duten multinazional espainiarren eraginak, afrikarren ondorengoak eta indigenak diren biztanleen gaineko eragina eta multinazionalen gizarte-erantzukizuna eta jokatutako kodeak.



## Sentsibilizazioa

Sentsibilizazio Sailak garapenari eta lankidetzari buruzko gaiak gizartean zabaltzea, kontzientzia kritikoa sortzea eta gizarte-mobilizazioa sustatzea du helburu.

### **“Bantaba” proiektua. “Metodo eta teknologia berrien bitartez, sentsibilizazioko eta garapenerako hezkuntzako sareak sendotzeko zerbitzuak” (II. fasea)**

Aurton, Bantaba proiektuak aurrera jarraitu du, eta, zenbait jardueraren bidez, komunikaziorako, prestakuntzarako eta esperientzia-trukerako eremuak eskaini nahi ditu. Era berean, teknologia berrietan oinarritutako tresnak bultzatu nahi ditu gizarte-sentsibilizazioaren arloan. Aurton, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzak eta Bilboko Udaleko Emakume eta Lankidetzak Sailak batera finantzatu dute proiektua. Honako jarduera hauek egin dira:

- *www.bantaba.ehu.es* atariko eremuak artatzea eta elikatzea: agiri, esteka eta bibliografia berriak sartzeko Behatoki Tematikoan eta Hezkuntza-Laboretegian; agiriak, Zabalgunean; dokumentatutako ikastaroak, Prestakuntza Erraza eremuan; eta baliabideak eta estekak, Gizartea Mugimendu(et)an eremuan.
- *Utopía informativa. Propuestas para un periodismo más social* argitaratzea. Lan kooperatiborako tresna teknikoaren bidez (wiki), komunikazioko zenbait profesionalak “dekalogoak” egin zituzten, komunikazioko profesionalak zenbait gaitan garatutako lana bideratzeko. Lana hau argitalpenean agertzen da (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Argitalpenak).
- *Utopía informativa. Propuestas para un periodismo más social* argitalpena aurkeztea. Ekainaren 13an, Bilboko La Bolsa Etxean. Aurkezpenaren osagarri, Miguel Romero ACSUR-Las Segoviaseko Komunikazio eta Ikaskuntzetako koordinatzaileak *Albiste kutsatuak: hegoaldeari buruzko informazioa, iparraldeko prentsan* hitzaldia eskaini zuen.

### **“Toki-eragileen partaidetza, bidezkoagoa eta solidarioagoa den globalizazioaren aldeko konpromisoan. Diagnostikoa eta proposamenak” Proiektua**

Proiektua aurton amaitu da, otsailaren 8an, 9an eta 10ean Bilbon *Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak* Biltzarra egin denean. Bertan, 280 lagunek parte hartu zuten, gutxi gorabehera. Biltzarrak 2005ean hasitako hausnarketa eta sentsibilizazio prozesuari eman zion amaiera. Prozesu horretan, hain zuzen ere, zenbait arlotako hiru-rogeita hamar inguru lagunek parte hartu zuten (unibertsitatea, GGKE, sindikatuak, gizarte-mugimenduak...), globalizazioari eta bere eraginei buruzko diagnostiko partekatua egiteko eta, batez ere, berdintasunezkoagoa den mundu solidarioagoaren eraketarako ekimenak bultzatzeko.

Proiektua Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzak eta Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak finantzatu dute. Honako argitalpen hauek editatu dira: (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Argitalpenak).

- *¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo.* 42. lan-koadernoak. Miguel González Martín.
- *Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak* Biltzarreko aktak. Hegoa.

### **Herritarrek Iparraldean eta Hegoaldean parte hartzean sortutako esperientzien sistematizazioa Programa**

2002an hasitako programa bigarren fasean amaitu da, eta Alboan, Hegoa eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua izan dira sustatzaileak. Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

finantzatutako proiektuaren esparruan, bost argitalpen kaleratu dira, sistematizazio-prozesuan parte hartu zuten taldeen sistematizazio-esperientzien berri emateko (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Argitalpenak).

### **Generoa garapenerako hezkuntzan. Iparraldeko eta Hegoaldeko eztabaidagaiak, emakumeen agenda politikorako**

Proiektuak lankidetzarekin eta garapenerako hezkuntzarekin zerikusia duten eragileak sendotzea du helburu, genero-berdintasuna giza garapenerako ardatza dela konturatu daitezen eta, horren ondorioz, lankidetzako zein hezkuntzako jardueretan genero-ikuspegia eraginkortasunez kontuan hartu dezaten. Batetik, lankidetzan zein hezkuntzan genero-ikuspegia kontuan hartzeko gai garrantzitsuen inguruan prestatzeko eta hausnartzeko jarduerak eskaintzen dira (mintegiak eta ikastaroak). Bestetik, GGKE-ei laguntzeko materialak prestatzen dira; esate baterako, gure arloko GGKE-en eta erakunde feministen arteko zubiak ezartzeko gidaliburua eta generoak garapenerako hezkuntzan duen zeresanari buruzko eskuliburua.

Proiektuak bi urteko iraupena du, ACSUR-Las Segoviasekin batera egiten da eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzak eta Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak finantzatu dute. Aurton, honako jarduera hauek egin dira:

- *Emakumeen eskubide ekonomikoak* Mintegia. Maiatzean eta ekainean, bi mintegi egin ziren Bilbon eta Gijonen. Topaketarako eta eztabaidarako gunea hiru saiotan egituratuta zegoen, eta honako helburu hauek zituen: pentsaera ekonomiko feminista zabaltzea, emakumeek eragile ekonomiko moduan duten zeresana onestea eta garapenerako zein nazioarteko lankidetzarako ekimenei buruz-

ko begirada kritikoa eskaintzea. Horretarako, Amerika Latinoko erakunde feministek parte hartu zuten: Elena Villanueva, Flora Tristan Peruko Emakumeen Zentroko Landa Garapenerako Programako koordinatzailea (Peru); Isabel Fabián, Melidasko Partaidetza Politikorako Saileko koordinatzailea (Salvador); eta Yolanda Jubeto zein Mertxe Larrañaga, EHUko ekonomia Zientzietako doktoreak eta *Emakumeak eta Ekonomia* ikasgaiko irakasleak. Mintegiaren osagarri, mahai-ingurua egin zen mugimendu feministako erakundeekin; eta beste bat, GGKE-ekin. Mintegian zehar egindako lanari buruzko hausnarketak argitaratuko dira laster. Emakumeok bertan zeudela eta, bi hitzaldi egin ziren Bilbon eta Gijonen, *Amerika Latinoko emakumeen eskubide ekonomikoak: landa-ingurunea eta hiri-ingurunea* izenburupean. Hitzaldi hori Hegoako Garapen eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Masterreko ikasleei ere eman zitzaion.

- *Emakumeen eragin politikoa eta herri-partaidetza* Mintegia. Azaroan, hiruna saioko bi mintegi egin ziren Madrilen eta Murtzian. Hona hemen helburuak: pentsaera politiko feminista zabaltzea, emakumeek itun politiko eta herritarretako eragile aktibo moduan

duten estatusa onestea eta garapenerako zein nazioarteko lankidetzarako ekimenei buruzko begirada kritikoa eskaintzea. Hona hemen parte-hartzaileak: Hogla Teruel, "CDM" Emakumeen Eskubideen Zentroko Herri Partaidetzarako Programako koordinatzailea (Honduras); Elena Crespo, ADA Informazioko eta Komunikazioko Langileen Sare Nazionalakoa (Bolivia); eta Nina Infante, FPF Politika Feministaren Foroko presidentea (Estatu espainola). Mugimendu feministaren eta GGKE-en lana eta ekarpenak aurkezteko, mintegian talde horientzako mahai-ingurua ere egin zen, bigarren eta hirugarren saioan, hurrenez hurren. Mintegian zehar egindako lanari buruzko hausnarketak argitaratuko dira laster. Mintegiaren osagarri, Hogla Teruelek eta Elena Crespok hitzaldiak eman zituzten Madrilen eta Murtzian, *Emakumeen eragin politikoa eta herri-partaidetza* izenburupean.

Proiektua aurkezteko eta jorratutako gaien inguruan sentsibilizatzeko, egindako mintegietako gaiei buruzko postalak argitaratu eta zabaldu egin dira: *Emakumeen eskubide ekonomikoak* eta *Emakumeen eragin politikoa eta herri-partaidetza*.

## Prestakuntza-ikastaro eta Tailerretako Partaidetza

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Genero Programa; Nafarroako Mugarik Gabe Elkartek generoari eta garapenari buruz antolatutako ikastaroak eta tailerrak; eta *Gatazka-eremuetako emakumeak* ikastaroa Kordoban.

## Sare eta Koordinakundeetako Lankidetzak

Sentsibilizazio Sailak Harresiak Apurtuz Elkarteko Komunikazio Sailarekin lan egiten du. Aurton, *Inmigración y Medios de Comunicación. Manual recopilatorio de buenas prácticas periodísticas* argitalpena aurkeztu da.



## Garapenerako Hezkuntza

Aurton, Garapenerako Hezkuntzako Taldeak 2004an hasitako programa europarra amaitu du, eta saileko plan estrategikoan zehaztutako proiektu berriari eman dio hasiera.

### HezkuEkintza. Garapenerako hezkuntzako jarduerak sendotzeko tresna eta baliabide berriak

Programak hiru urte irauten du, ACSUR-Las Segoviasekin (Asturias eta Madril) zein ASALekin (Erroma) batera garatzen da eta Europar Batasunak finantzatzen du. Programa 2007ko lehen hiruhilekoan amaitu da, eta hiru argitalpen kaleratu dira:

- *Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Biltzarreko Aktak*. Bi hizkuntzatan argitaratu da (euskaraz eta gaztelaniaz), eta, bertan, *Hezkuntza eraldatzailea, globalizazioaren erroken aurrean* Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Biltzarrean aurkeztutako hitzaldien testuak agertzen dira. Era berean, mintegi eta tailerretan garatutako lanak eta azken osoko bilkuran aurkeztutako azken ondorioak ere azaltzen dira bertan. Biltzarra Gasteizen egin zen, 2006ko abenduaren 7an, 8an eta 9an.
- *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Argitalpen honek corpus teoriko erabilgarria eskaintzen du, hezkuntza-ikuspegi horretan inplikaturako erakunde eta taldeen jardura bideratzeko. Batetik, garapenerako hezkun-

tzako diskurtsoko funtsezko kontzeptuak identifikatu eta biltzen dira hiztegian. Bestetik, esanahi, alderdi, osagai, ezaugarri eta eztabaida nabariak zehazten ditu, termino bakoitza ulertzeko eta, batez ere, ikuspegi kritikotik interpretatzeko. Diziplina anitzeko autore askok euren artikuluen bidez lagundu dute lan hau egiten.

- *Garapenerako Hezkuntzako Esperientziak*. Argitalpen honetako esperientziak garapenerako hezkuntzaren arloan garatutako jardura eta programa ugarien adibidetxoak baino ez da. Esperientzia horiek, hain zuzen ere, garapenerako hezkuntzako eragile aktiboen lana sendotu dezakete, eta hezkuntza-ekintzen zein gizarte-sentsibilizazioaren kopurua eta eragina biderkatu ditzakete. 15 esperientziek antolamenduari buruzko informazioa eskaintzen dute, jardura azaltzen dute eta lortutako emaitzak nabarmentzen dituzte. Argitalpena hiru ediziotan dago eskuragarri: gaztelania-euskaraz, ingelesez eta italieraz.

## Herritartasun globalerako hezkuntzari buruzko ikerketa, eztabaidak eta esperientziak

Proiektuan, Garapenerako Hezkuntza, Kultura arteko Hezkuntza eta zeharkako antzeko ikuspegiak kontuan hartzean Hezkuntza Lege berriak (LOEK) eskaintzen dituen aukerak aztertuko dira. Zenbait jardueraren bitartez, eztabaida irekia proposatzen da, hezkuntza formalaren arloan ikuspegi horiek aspaldidanik kontuan hartu nahi dituzten eragileen eta hezkuntza formala nahiz ez-formala lotzeko toki-proiektuetan parte hartzen duten eragileen artean. 2007. urtean, honako jarduera hauek garatu dira:

- *Herritar kritikoak prestatzen. Hezkuntzari buruzko eztabaidak eta esperientziak* zuzeneko mintegia. Mintegia hausnarketa, eztabaida eta zenbait hezkuntza-eragileren arteko esperientzia-trukea sustatzea du helburu. Mintegian, 39 lagunek parte hartzen dute, eta, hilean behin, 4 orduko saioan biltzen dira. Azken hiruhilekoan, hiru saio egin dira: a) *Diagnostiko partekatua*. Hegoa; b) *Kultura artekotasuna, zer ote da?* Pilar Folgueiras (GREDI-Bartzelonako Unibertsitatea); c) *Aniztasunaren diskurtsoa. Zer ote da hezkuntzaren kalitatea?* Francesc Carbonell (pedagogoa).
- *Hezkuntza, eztabaidagai* hitzaldi-zikloa, Gasteizko Hika Ateneoan. Hilean behin, jende guztiarentzako zabalkunde-hitzaldiak egiten dira. Orain arte, honako hauek garatu dira: a) *Kultura arteko gizartea lortzeko erronkak eta bideak*. Xabier Aierdi (Ikuspegi. EHU); b) *Gizarte-kohe-siorako hezkuntza*. Francesc Carbonell (pedagogoa).
- *Herritar kritikoak prestatzen. Hezkuntzari buruzko eztabaidak eta esperientziak* on line mintegia. Mintegi birtual honen helburu pedagogikoa zuzeneko mintegiarena da. Bertan, 21 lagunek parte hartzen dute. Horretarako, plataforma birtuala garatu da Gasteizko Saregunerekin. Izan ere, behar besteko zerbitzu teknikoa eta babes eskaini ditu, [www.mundubildu.org](http://www.mundubildu.org) web gunea eratzeko.



## Epe luzerako Prestatzaileen Prestakuntza, Garapenerako Hezkuntzan. Polygone

Prestakuntza-programa hau Polygone Garapenerako Hezkuntza eta Herri Hezkuntzaren Nazioarteko Sarean kokatuta dago, eta honako hauexek osatutako partzuergoak sustatzen du: ITECO (Brusela), CIDAC (Portugal), CIP (Madril) eta HEGOA (Euskadi). Programa 2007ko martxoan amaitu zen arren, Polygone partzuergoak nazioarteko sarea ebaluatzeko eta koordinatzeko jarduerari jarraipena ematea erabaki zuen. Azken hila-

beteotan, Europako partzuergoko erakundeek 10etik gora urtez batera egindako lanari buruz hausnartzeko epealdia ireki da. [www.webpolygone.net](http://www.webpolygone.net) web orria bultzatu da berriro, eta, orain, foroak zein albisteak daude bertan. Horrez gain, toki-sarea dinamizatu da, Kantauri Itsasoko erlaitzeko erakundeentzat garapenerako hezkuntzari buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko eremua izan dadin.

## Vitoria-Gasteizko Udaleko Baliabideen Gidaren eguneraketa

Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzak Zerbitzuak eskatuta, erakundearen web

orrian ikusgai dagoen Sentsibilizazio Baliabideen Gida eguneratu du Hegoak.

## Graduatu ondoko, Prestakuntza-Ikastaro eta Tailerretako Partaidetza

*Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak Masterra.* Hegoa, EHU; *Garapenerako Lankidetzako Estrategiak, Politikak eta Eragileak* on line Masterra. Hegoa, EHU; *Garapenerako hezkuntzari buruzko ikastaroa*, Nafarroako GGKE-en Koordinakundeak antolatua; *Garapenerako hezkuntzari buruzko ikastaroa*, Edualterrek antolatua. Bartzelona; *Garapenerako hezkuntzaren irizpenari buruzko tailerra*, Hegoak FCONGDeko erakundeentzat egindakoa. Bartzelona; *Garapenerako hezkuntzari buruzko ikastaroa*, Asturiasko Printzerriko GGKE-en Koordinakundeak antolatua. Oviedo; *Garapenerako hezkuntzari buruzko*

*ikastaroa*, Zirkulu Solidarioak antolatua. Donostia; *Garapenerako Hezkuntza Masterra*. Granadako Unibertsitatea; DGPOLDEK (AECIK) antolatutako tailerreko partaidetza, *Garapenerako Hezkuntzako Estrategiari* buruz eztabaidatzeko. Madril; *Garapenerako hezkuntzari buruzko ikastaroa*, Kantabriako Unibertsitateak eta Hezkuntza Sailak antolatua. Valdecilla (Kantabria); *Garapenerako hezkuntzako generoari buruzko tailerra*, MZCK antolatua. Kordoba; Comillasko Unibertsitate Pontifikaleko *Garapenerako Hezkuntzako Unibertsitate Espezialista izateko ikastaroko bideo-hitzaldia*, Madrileko FEREk antolatua.

## Aholkularitza eta Kontsultoretza

### Prestakuntza eta laguntza teknikoak: Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzaren eta Hegoaren arteko hitzarmena, tokiko garapen ekonomikoaren inguruko prestakuntza-estrategia abian jartzeko

Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzak eta Hegoak herri-ekonomiaren edo tokiko garapen ekonomikoaren (TGEren) arlo sektorialaren inguruko prestakuntza-plana sustatzen dute. Lerro horretan kokatutako lankidetzak ekintzak ikuspegi estrategikotik nahiz ikuspegi teknikotik hobetzea da helburu nagusia. Hona hemen prestakuntzaren hartzailak: iparraldeko lankidetzak-eragileen teknikariak eta estrategietako benetako subjektuak, hegoaldeko kontraparteak (Erdialdeko Amerikan eta Andean). 2007an, honako jardura hauek garatu dira hitzarmenaren esparruan:

- Tokiko garapen ekonomikoari buruzko ikastaroak:
- ✓ Liman (Perun). 40 orduko iraupena, Perun dauden euskal GGKE-etako erakunde kontraparteetako teknikarientzat, uztailaren 9tik 13ra. Irakasleak: Juan Carlos Cabrera, Iván Mifflin, Miguel Ordinola eta Samuel Machacuay. Bertaratutakoak. 30 lagun.

✓ Leonen (Nikaraguan). 40 orduko iraupena, Nikaraguan eta Salvadorren dauden euskal GGKE-etako erakunde kontraparteetako teknikarientzat, uztailaren 16tik 20ra. Irakasleak: Andrew Cummings, Ana Landa eta Rudy Mairena. Bertaratutakoak. 22 lagun.

✓ Antigua (Guatemalan). 40 orduko iraupena, Guatemalan eta Chiapasen dauden euskal GGKE-etako erakunde kontraparteetako teknikarientzat, irailaren 24tik 28ra. Irakasleak: Ernesto Celada, Ana Landa, Haydee Ayerdi eta Ligia Orante. Bertaratutakoak. 27 lagun.

- Bideragarritasun-planei buruzko ikastaroa, tokiko garapen ekonomikoaren testuinguruan. 20 orduko iraupena, EAEko garapenerako lankidetzako teknikarientzat, urriaren 29tik 31ra. Irakasleak: Beñat Arzadun eta Naiara Alonso, Mundukide Fundazioa. Basoko Etxean egin zen, eta 30 lagun bertaratu ziren.

### Garapenerako lankidetzako programak dituzten erakundeentzako aholkularitza

2007an, hiru euskal aldundiei, Irungo, Tolosako, Eibarko eta Santanderko udalei, EHUko %0,7 Elkartasun Fondoari eta BBKri eman genien aholkularitza.

Izan ere, aholkularitza eskaini die, lankidetzak eta sentsibilizazio proiektuetarako dirulaguntza-deialdietako oinarriak egiteko, aipatutako era-

kundeetako deialdietara aurkeztutako proiektuak aztertzeke eta onartutako proiektuen jarraipena egiteko.

Horrez gain, Hegoa esleipenduna izan zen, Bilboko Udaleko Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzailearen bitarteko ebaluazioa egiteko lehiaketan.



## Nazioarteko lankidetzako prestakuntza eta laguntza teknikorako proiektuak, Kuban, Kolonbian eta Tindoufeko (Aljeriako) kanpaleku sahararretan

Tokiko garapen ekonomikoaren sektorean, Kuban, prestakuntza eta laguntza teknikorako proiektuak jarri dira abian, honako hauen koordinaziopean: PNUKko Tokiko Giza Garapenerako Programa (TGGP), Holguineko Unibertsitatea, MINVEC (Atzerriko Inbertsio eta Lankidetzako Ministerioa) eta MINAZko (Azukre Ministerioa) GESAI. Jarduera gehienak, gainera, Holguineko ekialdeko lurraldean garatu dira. Hona hemen programan garatutako jarduerak:

- a. Holguineko Unibertsitateko diplomadunei tokiko garapen ekonomikoari buruzko prestakuntza, laguntza teknikoa eta irakaskuntza ematea eta Azukre Ministerioa Enpresen Kudeaketarako Prestakuntza Zentroari laguntzea, Las Tunasko probintzian.
- b. Antzinako azukre-zentralen (CAIen) birmoldaketan, garapen ekonomikorako jarduerak sustatzea; esate baterako, Holguineko probintziako CAI Guatemala, CAI Frank Pais eta CAI Maceo.

Era berean, Eusko Jaurlaritzarekin ere sinatu dugu hitzarmena, MINVECen prestakuntza eta laguntza teknikoa zeharka babesteko (Habanen diplomaduna jarrita), Prestakuntza Zentro Nazionalari (Dokumentazio Zentroari) laguntzeko, MINAZ sustatzeko eta elikaduraren subiranotasunari zein azukre-birmoldaketari buruzko ikerketak egiteko.

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan (SEADen), Tindoufeko (Aljeriako) kanpalekuetako erre-

fuxiatuentzako prestakuntza eta laguntza teknikorako proiektuak jarri dira abian. Beraz, prestakuntza eskaintzen zaie Saharako ministerioetako eta Saharako Emakumeen Batasuneko (UNMSko) teknikariei. Horrez gain, proiektuen kudeaketari eta toki-administratioari buruzko prestakuntza bereziak ere ematen dira. 2007a. urtean, bi proiektu jarri dira abian, UNMSko kooperatiben programa eta wilayetako tokiko garapen ekonomikorako bulegoak bultzatzeko. Prestakuntza eta laguntza teknikoa eman dira, UNMS eta funtzio publikoa sendotzeko. Horretarako, ekoizpen eta zerbitzu arloko ekimenak garatu dira wilayetan, eta ekipamenduanahiz mikrokredituetarako txandakako fondoa eskaini dira, UNMSen eta kanpalekuetako funtzio publikoan lan egiten duten biztanleen ekimen ekonomikoak sustatzeko.

2007. urtetik aurrera, beste lan-lerro bat jarri da abian, toki-gaitasunak sendotzeko eta Saharako gazteentzako lana sortzeko. Horretarako, ekoizpen eta Zerbitzu Zentroa eraiki eta hornitu da Smarako wilayan. Proiektu hori, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak eta AECIK finantzatu dute batera.

Kolonbian, lankidetzako proiektua garatu da Medellingo Antioquiako Unibertsitatearekin, Garapenerako Lankidetzari buruzko Masterrean prestakuntza sustatzeko, eskualdeko udalerriei proiektuen kudeaketarako prestakuntza eta aholkularitza emateko eta proiektuen zein toki-erakundeen kudeaketari buruzko bi gida didaktiko argitaratzeko.

## Graduatu ondoko, Prestakuntza-Ikastaro eta Tailerretako Partaidetza

*Garapena eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra.* EHU; *Garapenerako Lankidetzako Estrategiak, Politikak eta Eragileak* on line Masterra. EHU; *Nazioarteko ekonomia eta Garapen Ekonomikoa* Masterra. Bartzelonako Unibertsitatea; *Medikuntza Humanitarioa: Osasunaren eta Ekintza Humanitarioaren arloko Jarduketak* Masterra. Madrileko Unibertsitate Konplutentse; *Garapena eta Nazioarteko*

*Lankidetzako Masterra.* Lleidako Unibertsitatea; *Garapenerako Lankidetzako Proiektuen Kudeaketa* Graduatu ondokoa. Leongo Unibertsitatea; *Lankidetzako proiektuak kudeatzeko ikastaroa*, San Cristobal de las Casasen, Mexikoko Chiapasen, nekazarien eta indigenen toki-erakundeentzat, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzaren babesaz.



## ART Programa

ART nazioarteko lankidetzarako ekimena da, eta Nazio Batuetako zenbait erakunderen programak eta jarduerak biltzen ditu: PNUD, UNESCO, UNOPS, UNIFEM eta beste batzuk. Alderdi aniztasun berria sustatzen duenez, gobernuek eta Nazio Batuek gizarte-eragile eta toki-erkidegoekin batera lan egiten dute. ART siglak "Appui aux réseaux territoriaux et thématiques de coopération au développement humain"-ren akronimo frantsesetik datoz (Giza Garapenerako Lankidetzako Lurralde Sare eta Sare Tematikoen Babesa). ARTEk milurteko garapen-helburuak (Millennium Development Goals, MDG) hartu ditu bere gain.

ART Initiativek nazioartean lan egiten du, herrialde-programetarako laguntza teknikoa eskaintzeko. Bestetik, bertako eragileen sareen eraketa babesten du, eta giza garapenaren zein nazioarteko lankidetzaren kultura eta jarduera bultzatu eta zabaldu egiten ditu. ART International, ordea, nazioarteko zenbait programa eta zerbitzurekin dago harremanetan, eta Nazio Batuetako agentzietako espezializazio-arloak, unibertsitateak eta zentro espezializatuak mobilizatzen ditu, iparraldeko eta hegoaldeko zenbait herrialdetan.

Aurton, Hegoa Institutuaren eta ART Programaren (Giza Garapenerako Lankidetzako Lurralde Sare eta Sare Tematikoen Babesaren) arteko lankidetzahitzarmena sinatu da. Hitzarmen horren barruan, Tokiko Giza Garapenari buruzko Baliabideen Web Sistema sortuko da, gaiarekin lotutako baliabideak kudeatu, sailkatu eta aurkezteko eta EAEn egin beharreko programa-zabalkundearekin lotutako ikasmaterialak sortzeko.



## Beste Jarduera batzuk

### Amanda Plataforma

Garapenerako Hezkuntzako Sailaren bidez, Hegoak Amanda Plataforman parte hartzen du. Bertan, zenbait lagun eta talde biltzen dira, Gasteizeko kulturen arteko elkarbizitzari buruzko ideiak, ikuspegiak eta esperientziak trukatzeko. Izan ere, lan-proiektuak garatzen dituzte hiriko alde zaharreko zenbait arlotan, eta guzti-guztiek babesik gabe eta berdintasunik gabe iritsi diren pertsonak hartzea eta gizarteratzea dute helburu. Honako talde hauek dira plataformako kideak: EHUKo Lankidetzako Proiektuetako Praktika Programa; Saregune; El Campillo Auzo Etxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua; ACD Campilloko Zenbait Kulturatako Emakumeen Elkarriketa Dantzaren bidez; Ramon Bajo LHko Eskolaz Kanpoko Kirol Jardueren Programa; Dunia Topaketa; eta Hegoako Garapenerako Hezkuntzako Saila.

### Immigrazioaren Euskal Foroa

Aurton, Garapenerako Hezkuntzako Sailak Immigrazioaren Euskal Foroko Hezkuntza Batzordean parte hartu du. Foroa Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak sustatutako eremua da, eta erakunde horretako Hezkuntza Sailak ere parte hartzen du bertan. Foroan, hain zuzen ere, beste instituzio eta erakunde sozial batzuekin alderatu da "Kultura artekotasuna sustatzeko eta ikasle iritsi berriak gizarteratzeko programa". Eremu horretan, ekarpenak eta iradokizunak egin dira, beste kultura batzuetatik euskal hezkuntza-sistemara datozen ikasle-en harrera eta tratamendua arautuko dituzten etorkizuneko politiketan eragin positiboa edukitzeko.

### Harresiak Apurtuz

Sentsibilizazio Sailaren bitartez, Hegoak etorkinei laguntzeko Euskadiko GKE-en Koordinakundearen parte hartzen du (Harresiak Apurtuz), eta koordinakunde horretako Komunikazio Sailean lan egiten du. Horrez gain, hasiera-hasieratik, bertako Zubiak prestakuntza-ikastaroan parte hartzen du, "Garapena, Globalizazioa eta Ongizate Estatua" I. modulu koordinatzeko.

### UNIFEM eta ART Bekak

Hegoak UNIFEMeko (Emakumeen Garapenerako Nazio Batuetako Fondoko) eta ART Programako beketarako ikasleak hautatu eta euren jarraipena egiten du, erakundeak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako hitzarmenaren arabera. Programa hau Prestakuntza eta Irakaskuntza Sailak koordinatzen du.

## Argitalpenak

### Artikuluak eta Ikerketak

ALBERDI, J. *El nuevo entramado jurídico-institucional de la política comunitaria de cooperación al desarrollo*. Aldizkari/liburuaren erref.: administrazio publikoaren euskal aldizkaria. 79. zk., 15-39. orr., (2007ko iraila-abendua).

BIDAURRATZAGA, E. *Luces, sombras y retos de los Objetivos de Desarrollo del Milenio en materia de salud en África Subsahariana*. Claves de Economía Mundial. ICEX/ICEI. Madril, (2007).

BIDAURRATZAGA, E. Desarrollo Humano en África Subsahariana: evolución y perspectivas de la educación y la salud in *Economía Política del Desarrollo en África*, C. Oya eta A. Santamaría. Akal. Madril, (2007).

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Empresas transnacionales, desarrollo y soberanía: modificaciones normativas*, Sortuz aldizkaria. Oñati. Journal of Emergent Socio-legal Studies, 1. liburukia, 2. issuea, 77-104. orr. (2007).

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Los Tribunales Permanentes de los Pueblos: una excusa para denunciar a las multinacionales*. Pueblos. Informazio eta eztabaidarako aldizkaria, OMAL, (2007ko abendua).

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Transnacionales y desarrollo*. CEDOC Hegoako informazionalabideen aldizkaria, (2007ko abendua).

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *¿Bolivia dividida? Cuánta demagogia*. Amerika Latinoko Multinazionalen Behatokiko aldizkaria, OMAL, (2007ko azaroa).

LARRAÑAGA, M. *Radiografía socioeconómica de la CAE desde una perspectiva de género* in *Zerbitzuan*, 42. ISSN: 1134-7147, 73-86. orr., (2007).

LÓPEZ BELLOSO, M. *La ayuda humanitaria a la población Saharaui: impacto y limitaciones de las políticas de asistencia a los refugiados*, in *Global Affairs*, 6. zk., (abendua-2008ko urtarrila), [www.globalaffairs.es](http://www.globalaffairs.es) (ingeleseko bertsioa: *Humanitarian aid for the Sahrawi people: The impact and limitations of aid policies for refugees*, Issue 6 / December-January 2008, <http://www.globalaffairs.es/Noticia-260.html>).

UNCETA, K. (zuz.) *La Cooperación al Desarrollo en las universidades españolas*. AECI. Madril, 200 orr., (2007).

UNCETA, K. *Globalización y pobreza: viejos y nuevos debates*, in J. Martínez Peinado eta R. Sánchez Tabares: *El futuro imposible del capitalismo*. Icaria-Antrazyt. Bartzelona, (2007) (149-175. orr.).

UNCETA, K. *Cooperación al desarrollo: el nuevo perfil de la universidad*, in M. Iglesia-Caruncho (koord.): *Avances y retos de la cooperación española. Reflexiones para una década. Siglo XXI*, Carolina Fundazioa. Madril, 443-453. orr., (2007).

UNCETA, K.; MALAGON, E. *La multifuncionalidad agraria y las preocupaciones no comerciales en los debates de la OMC*, in *Boletín Económico de Información Comercial Española*, 2920. zk. Madril, 29-40. orr., (2007).

ZABALO, F. Entrada *Organismos internacionales* (238-240. orr.), in Gema CELORIO eta Alicia LÓPEZ DE MUNAIN (ed.), *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Hegoa. Bilbo, (2007).

ZABALO, F.; LOPEZ, A. *El mundo no es una mercancía*. Hegoa. Bilbo, 22 orr., (2006ko abendua).

ZURBANO, MIKEL *Teknologia, lehiakortasuna eta gizarte-berrikuntza EAEn*, in Eizagirre, A. (koord.): *Ezagutzaren politikak: zientziaren kultura berrirako oinarriak*, Ed. UEU, Bilbo, (2007).

### Hitzaldiak eta Komunikazioak

BIDAURRATZAGA, E. *Desarrollo Humano en África Subsahariana: luces, sombras y perspectivas de la educación en la era de la globalización*. Komunikazioa. Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak Biltzarra. Hegoa. Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea. Bilbo, (2007ko otsaila).

GURIDI, L.; PEREZ DE MENDIGUREN, J. C. *La Economía Social y Solidaria, y el Desarrollo Humano Local*. Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak Biltzarra. Hegoa. Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea. Bilbo, (2007ko otsaila).

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Empresas transnacionales, democracia y soberanía. Modificaciones normativas*. Komunikazioa. Oñatiko II. Biltzar Sozio-juridikoa. Amerika La-

tinoko zuzenbidearen formak: demokrazia, garapena, askapena. Oñatiko Soziologia Juridiko Institutua, (2007ko otsaila).

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Empresas transnacionales y soberanía: modificaciones normativas, acción social y sindical*. Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak Biltzarra. Hegoa. EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea. Bilbo, (2007ko otsaila).

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. *Del poder político y económico de las empresas transnacionales a la Responsabilidad Social Corporativa*. Hitzaldia. Zor ekologikoa: energia, transnazionalak eta klima-aldaketa Biltzarra. EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea. Bilbo, (2007ko urria).

LARRAÑAGA, M. *Radiografía socioeconómica del País Vasco desde una perspectiva de género*. Biltzarra: Ekonomia Feministaren II. Biltzarra, Zaragoza, (2007ko maiatza).

LÓPEZ BELLOSO, M. *El terrorismo islámico, ¿terrorismo global?* Komunikazioa. Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak Biltzarra. Hegoa. Sarriko Ekonomia Zientzietako Fakultatea. Bilbo, (2007ko otsaila).

LÓPEZ BELLOSO, M. *El papel del estado y la monarquía en el auge del islamismo en Marruecos*. Komunikazioa. Soziologia eta Zientzia Politikoaren VII. Euskal Biltzarra. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, (2007ko otsaila).



UNCETA, K.; BIDAURRAZAGA, E. *¿Vino viejo en odres nuevos? Las relaciones chino-africanas a comienzo del siglo XXI*. Komunikazioa. Munduko Ekonomiaren IX. Bilera. Ekonomia Zientzietako Fakultatea. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, (2007ko apirila).

UNCETA, K.; MALAGÓN, E. *Desarrollo rural y comercio agrícola: la multifuncionalidad de la agricultura y las PNC en los debates de la OMC*. Komunikazioa. Munduko Ekonomiaren IX. Bilera. Ekonomia Zientzietako Fakultatea. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, (2007ko apirila).

UNCETA, K. *El desarrollo como idea y como realidad: debates y retos a comienzos de siglo*. Hitzaldi gonbidatua. José María Vidal Villa Garapenaren Ekonomiari buruzko Biltzarra. Ekonomia Zientzietako Fakultatea. Malagako Unibertsitatea, (2007ko abendua).

ZABALO, F. *Las demandas inversor-estado, nueva expresión del desequilibrado terreno de juego neoliberal*. Komunikazioa. Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak Nazioarteko Biltzarra. Hegoa. Bilbo, (2007ko otsaila).

ZABALO, F. *Una globalización tramposa y excluyente*. Hitzaldi gonbidatua. Garapenerako Lankidetzako Eragileei buruzko I. Jardunaldiak: larrialdiak eta krisi humanitarioak. Cadizeko Unibertsitatea, (2007ko apirila).

ZABALO, F. *Reflexiones sobre el codesarrollo: la mirada desde el desarrollo*. Komunikazioa. Baterako Garapenari buruzko Jardunaldiak: etorkinak, sorterriko eta herrialde hartzaileko subjektu aktiboak. Hikaateneo. Bilbo, (2007ko urtarrila).

ZURBANO, M. *Gobernanza e innovación social. Reflexiones desde el Sistema Vasco de Innovación*. Komunikazioa. Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak Biltzarra. Hegoa. Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea. Bilbo, (2007ko otsaila).

ZURBANO, M. *La gobernanza social y las Políticas de innovación en Euskadi*. Komunikazioa. Eskualde Ikaskuntzen XXXIII. Bilera. Leon, (2007ko azaroa).

### Lan-Koadernoak

*¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo*. Miguel González Martín. 42. lan-koaderno.

### Beste Argitalpen Batzuk

*Giza garapenaren erronka: beste globalizazio baterako toki-proposamenak Biltzarreko aktak*. Hegoa. Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako Saila.

*Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Biltzarreko aktak*. Hegoa. Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako Saila.

*Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Gema Celorio eta Alicia López de Muniain (koord.). Hegoa.

*Garapenerako Hezkuntzako Esperientziak*. Hegoa. Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako Saila.

# Organigrama Instituzionala

## Hegoa Institutuko Zuzendaritza Kontseilua

**Zuzendaria:** Luis Guridi **Idazkaria:** Karlos Pérez Alonso de Armiño **Kideak:** Alfonso Dubois, Eduardo Bidaurrezaga, Jokin Alberdi, Carlos Puig, Patxi Zabalo, Amaia del Río, Juan C. Pérez de Mendiguren, Maribi Lamas.

## Hegoa Elkarteko Zuzendaritza Batzordea

(Onura publikoko elkarteak. EHAA, 165. zk., 2003ko abuztuaren 26a).

**Presidenteak:** Alfonso Dubois **Presidenteordeak:** Lucía Vidal **Idazkaria:** Eduardo Bidaurrezaga **Diruzaina:** Luis Guridi **Kideak:** Carlos Martín Beristain, Yolanda Jubeto, Juan Carlos P. De Mendiguren, María José Mijangos

Oharra: 2007ko ekainaren 21ean, Zuzendaritza Batzorde berria izendatu zen. Bertan, Uri Ruiz Bikandik, Txema Navarrok eta Marga Roigek utzi zuten euren kargua.

## Hegoa Institutura atxikitako irakasleak

Xabier Aierdi, Jokin Alberdi, Efrén Arreskurrinaga, Xavier Barrutia, Roberto Bermejo, Eduardo Bidaurrezaga, Mari Luz de la Cal, Mikel De la Fuente, Juanjo Celorio, Marian Díez, Alfonso Dubois, Iker Etxano, Xabi Gainza, Luis Guridi, Jorge Gutiérrez, Juan Hernández Zubizarreta, Pedro Ibarra, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Jon Larrañaga, Imanol Madariaga, Eduardo Malagón, Zesar Martínez, Elena Martínez Tola, Mari José Martínez, Karlos Pérez de Armiño, Juan C. Pérez de Mendiguren, Víctor Pozas, Uri Ruiz Bikandi, Koldo Unceta, Idoye Zabala, Patxi Zabalo, Imanol Zubero, Mikel Zurbano.

## Talde teknikoak

**Dokumentazio Zentroa:** Itziar Hernández; Iñaki Gandariasbeitia **Prestakuntza eta Irakaskuntza:** Maribi Lamas, Isabel Rodríguez, Marisa Lamas **Ikerketa:** Gloria Guzmán **Sentsibilizazioa eta**

**Garapenerako Hezkuntza:** Gema Celorio, Amaia del Río, Mari Cruz Martín y Alicia López de Munain **Aholkularitza eta Kontsultoretza:** Carlos Puig, Michel Sabalza, Almudena Saiz, Maite Fernández- Villa; Josu Sánchez **ART Programa:** Luis Elizondo **Administrazioa eta Idazkaritza:** Pilar Jurado, Joana del Olmo.

## Bekadun ikertzaileak

Irantzu Mendia, María López Belloso.

## Sareak eta lankidetzak

ARDA - Afrikako Ikerketa eta Irakaskuntza Elkar-  
tea • Euskadiko GGKE-en Koordinakundea (kide  
laguntzailea) • Espainiako GGKE-en Koordi-  
nakundea (kide laguntzailea) • Harresiak Apurtuz  
- Etorikinei Laguntzeko Euskadiko GKE-en Koor-  
dinakundea • WIDE - Women in Development  
Europe • EADI - European Association of  
Development Institutions • REDIAL - Amerika  
Latinoari buruzko Informazio eta Dokumentazio  
Sare Europarra • SID - Garapenerako Nazioarteko  
Gizartea • SEDIC - Dokumentazio eta Informazio  
Zientifikoaren Elkarte Espainiarra • ALDEE -  
Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentalisten  
Euskal Elkarteak.


## Hitzarmenak beste unibertsitate batzuekin

Antioquiako Unibertsitatea (Medellin. Kolonbia) •  
Amazoniako Unibertsitatea (Florentzia-Caqueta.  
Kolonbia) • Holguineko Unibertsitatea (Holguin,  
Kuba).

## Laguntzaileak

Eskerrak eman nahi dizkiegu urtean zehar,  
modu batera edo bestera, Hegoa Institu-  
tuarekin zenbait jardueratan lan egin duten  
guztiei.

# Txosten ekonomikoa



## Informe de Auditoría Independiente de las Cuentas Anuales

4 de diciembre Consejo de AUSA, INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COMERCIALIZACIÓN INTERNACIONAL

1. Hemos realizado las cuentas anuales de AUSA, INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COMERCIALIZACIÓN INTERNACIONAL, que comprende el balance de situación al 31 de diciembre de 2007, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria correspondiente al ejercicio anual terminado en dicha fecha, cuya responsabilidad es responsabilidad de la Junta Directiva de la Entidad. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre los estados contables emitidos en su conjunto, basados en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalistas aplicables, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas efectivas de la evidencia justificativa de los estados contables y la evaluación de su procesamiento, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. La Junta Directiva presenta a nuestra comparación con los datos de los períodos del balance de la cuenta de pérdidas y ganancias y del estado de flujos de efectivo, además de los datos del ejercicio 2007, los correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados contables del ejercicio 2007. Con fecha 24 de abril de 2007 presentamos nuestra opinión de auditoría sobre los estados contables del ejercicio 2006, en el que expresamos una opinión favorable.

3. La actividad de la Entidad en dicho ejercicio no se refiere por los gastos por período. Asimismo, de los Organismos Públicos se forma de subsistemas. Por ello, la continuidad de la actividad es esencial para la realización de dicho período.



4. En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2007 reflejan expresos en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de AUSA, INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COMERCIALIZACIÓN INTERNACIONAL al 31 de diciembre de 2007 y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados durante el ejercicio anual terminado en dicha fecha y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada de conformidad con principios y normas contables generalistas aplicables que permiten razonablemente una opinión favorable en el ejercicio anterior.

JURISDICCION CONSULTIVA S.L.

Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Comercialización Internacional

File: Los Estados Contables Ejercicio 2007

Bilbao, 23 de abril de 2008.

## 2007ko abenduaren 31 arteko Emaizen Kontua

ZOR	2007	2006	HARTZEKO	2007	2006
<b>A) GASTUAK</b>	<b>1.551.636,28</b>	<b>1.408.550,37</b>	<b>B) SARRERAK</b>	<b>1.632.489,62</b>	<b>1.472.694,96</b>
• Moneta-laguntzak eta bestelakoak proiektuetan	526.272,91	402.119,85	• Erakundearen sarrerak, berezko jarduera dela eta	1.615.677,05	1.464.640,06
A. Laguntza ekonomikoak beste erakunde batzuei eta beka	490.257,13	383.060,75	- Erabiltzaile eta bazkideen kuotak	20.932,14	28.893,98
B. Kolaborazio-gastuak / Dietak eta egonaldiak	36.015,78	19.059,10	- Ekitaldiko emaitzetan kontabilizaturiko dirulaguntzak emariak eta ondasunak	1.435.833,90	1.278.533,44
• Langileen gastuak	<b>605.222,08</b>	<b>526.390,57</b>	- Berezko jardueraren beste sarrera batzuk (zerbitzuak)	158.911,01	157.192,64
A. Lansariak	466.764,69	411.269,64	• Beste sarrera	1.093,28	698,96
B. Gizarte zamak	138.457,39	115.120,93			
• Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak	3.758,13	4.771,34			
• Proiektuak gauzatzeko zuzeneko gastu	415.885,55	472.303,75			
<b>I. USTIAPIEN EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>65.631,66</b>	<b>59.753,51</b>	• Beste sarrera batzuk	<b>15.667,09</b>	<b>7.315,94</b>
• Finantza gastuak eta antzekoak	497,61	512,48			
<b>II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>15.169,48</b>	<b>6.803,46</b>			
<b>III. JARDUERA ARRUNTEN EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>80.801,14</b>	<b>66.556,97</b>	• Beste ekitaldi batzuetako sarrerak eta irabaziak	52,20	40,00
• Aparteko gastuak	--	200,00			
• Aurreko ekitaldietako gastuak eta galerak	--	2.252,38			
<b>IV. ZERGEN AURREKO EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>52,20</b>	<b>40,00</b>	<b>IV. EZOHIKO EMAITZA Negatiboak</b>	--	<b>2.412,38</b>
<b>V. EKITALDIKO SOBERAKIN POSITIBOAK</b>	<b>80.853,34</b>	<b>64.144,59</b>			
<b>VI. EKITALDIKO SOBERAKIN POSITIBOAK</b>	<b>80.853,34</b>	<b>64.144,59</b>			